1. artikulua. ANTOLATZAILEA

- 2018ko urtarrilaren 21ean **Mungiako San Antontxuko XIX. Herri-Krosa** antolatuko da. Herri mailako lasterketa honen antolaketea Mungia Atletismo Taldearen ardurea izango da; eta zeregin horretarako herriko enpresa eta lokalen laguntza eta babesa izango dau.

2. artikulua.- Ibilbidea eta kronometrajea

- Lasterketa 11:00etan hasiko da Trobika kaletik abiatuta (Udaletxearen aurrean); eta lasterkariek ibilbidea egiteko distantzia desbardineko aukera bi izango dabez:

5 km-ko distantzia (buelta 1 zirkituari). Denporea: gehinez 40 min.

10 km-ko distantzia (buelta 2 zirkituari). Denporea: gehinez 1h 15min.

5 km-ko lasterketan parte hartu ahal izateko, 14 urte beteak izan behar dira lasterketa eguna baino lehen.

10 km-ko lasterketan parte hartu ahal izateko, 16 urte beteak izan behar dira lasterketa eguna baino lehen.

Antolatzaileek arreta berezia jarriko dabe baldintza hori bete daiten; eta beteten ez dauenak ezin izango dau lasterketan parte hartu.

- Kronometrajea egingo da, eta horren bidez lasterkari bakotxak egin dauen denporaren barri izango dau.

MUNGIA ATLETISMO TALDEAk txikienei esfortzuaren eta ahaleginaren balioa transmititzea gurako leuke; beraz, helmuga aurreko akabuko metroak eta helmuga bera ezin izango dira egin eskutik oratuta, besoetan hartuta edo antzeko eraren baten.

Erakutsi egin gura deutsegu egin doguna prestatze-lan baten ondorioa dala, ahalegin bat behar izan dala horretarako, eta horren guztiaren saria helmuga igarotea dala.

Umeentzat edadearen araberako lasterketak antolatu doguz:

- Herri Kros Txikia 10 km-ko probea amaitu ostean hasiko da: Aita Elorriagan egingo da, helduen lasterketatik sano paraje; ibilbide polita eta batua izango da. Izen-emoteak doan izango dira. Ondokoak dira mailak eta ordutegiak:

o	12:30ean:	2013 eta 2016 bitartean jaioak.	250 metroko distantzia
o	12:37ean:	2010 eta 2012 bitartean jaioak.	450 metroko distantzia
o	12:45ean:	2007 eta 2009 bitartean jaioak.	900 metroko distantzia
o	12:56an:	2004 eta 2006 bitartean jaioak.	1.609 metroko distantzia (MILLA).

3. artikulua. Izen-emoteak

- Izena emoteko plataformea 2017ko zemendiaren 24tik 2018ko urtarrilaren 17ra arte egongo da indarrean.
- Izen-emoteak **sailkapenak.com** web-gunean egin beharko dira eta, lasterketa bien artean, gehienez bere, 800 parte-hartzaile batu ahal izango dira.

- Izen-emotea pertsonala da eta ezin jako beste inori emon; hau da, ezin da titular-aldaketarik egin.
- Inskripzino bakotxeko 11 € (HAMAIKA EURO) ordaindu beharko dira, bai 5 kilometrokoan eta bai 10ekoan; beti bere ezarritako epearen barruan egiten danean (2017ko zemendiaren 24tik 2018ko urtarrilaren 17ra).
- Inskripzinoa egun berean (urtarrilaren 21ean) egin ezkero, antolatzaileen karpan egin beharko da eta 15€ (HAMABOST EURO) kostauko da; horren ganera, egun berean izena emoten dabenek ez dabe lasterkarien packa (kamisetea etab) hartzeko eskubiderik izango.

MUNGIA ATLETISMO TALDEAk parte hartzaile bakotxaren inskripzinotik EURO BAT emongo dau helburu solidarioa daukan proiektu baterako.

- Parte hartzaile bakotxak berak hartzen dau bere ganean proban parte hartzearen erantzukizun osoa, eta onartu egiten dau proba hori egoera onean amaitzeko behar dan baldintza fisikoak dituala.
- Probea egitea galarazoko daben faktoreak sortzen badira (eguraldia, ezinbesteko arrazoiak), antolatzaileek ez dabe euren ganean hartuko horren erantzukizuna.
- Izena emoteak araudiaren artikulu guztiak onartzea dakar.

4. artikulua.- Dorsalak hartzea

- Dorsalak ondoko egunetan hartu ahal izango dira: 2018ko urtarrilaren 19an (18:00etatik 21:00etara) eta 20an(10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era), Udaletxeko arkupeetan; eta lasterketaren egunean bertan, goizeko 09:00etatik aurrera, horretarako jarriko dan karpan.
- Derrigorrez aurkeztu beharko da izen-emotearen agiria eta NANa edo Pasaportea.
- Ez da dorsalik bananduko ezarritako egun eta ordu horreetatik kanpo.

5. artikulua. Lasterketarientzako Hornidurak eta Zerbitzuak:

- Mungiako Herri Krosak hornidura-gune bat izango dau helmugan parte-hartzaileentzat; horretarako dorsalaren bidez identifikatuta joan beharko dabe. Hornidura: frutea, ura, zuku naturalak, saldea, bokatak etab.
- Aldagelak eta dutxak: Parte hartzen dabenek Mungiako Udal Kiroldegiko aldagelak eta dutxak erabili ahal izango ditue. Horretarako derrigorrezkoa izango da dorsala erakustea.
- Lasterkarientzako opariak: Kamiseta tekniko ofiziala eta txikientzako sorpresa-oparia.

6. artikulua.- Aseguruak

- Antolatzaileek erantzukizun zibileko aseguru-polizea eukiko dabe, indarrean dagoan legediari jarraituta. Horren ganera, parte-hartzaile guztiek izango dabe istripuetarako aseguru-polizea.
- Proba honetan parte hartzea parte-hartzaileen euren erantzukizunaren pean dago erabat. Parte-hartzaileak, inskripzinoa egiten dauenean, lasterketa egiteko osasun egoera onean dagoala aitortuko dau.
- Antolatzaileak ez dira parte-hartzaileek lasterketa barruan sortu leiezan kalten arduradunak (ez euren buruengan sortutakoen kasuan eta ez inori sortutakoetan bere).